

"Arabako plazetan", Arabako kale arteen zirkuituaren 2. edizioak 33 emanaldi programatu ditu lurralde osoan zehar

2020ko estreinaldi arrakastatsuan baino 11 gehiago izango dira, 21 konpainiak maiatzetik irailera jardungo duten zirkuituan

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 31. Gaur aurkeztu da prentsaurrekoan "Arabako Plazetan" Arabako kale arteen 2021eko zirkuituaren bigarren edizioa. 33 antzerki, clown, dantza eta zirku ikuskizun programatu ditu lurraldeko beste hainbat udalerritan, non 21 konpainiak jardungo baitute maiatzetik irailera bitartean.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ustez, "iaz, krisialdian programazioan oinarritutako kultura berreskuratzearen alde egin genuen apustuan, antzerki, dantza eta zirku magikoko programa berri baten alde egitea erabaki genuen, lurraldean kultura ibilbide bat finkatzen eta prestatzen laguntzeko helburuarekin. Izan ere, horrekin –adierazi du– arte eszenikoak lurraldean zabaltzea eta sustatzea lortzen da, eskari berriak aintzat hartuz eta eraginez, kaleko arteen ikuskizunen eskaintza herri guztietara helarazten dugu, eta, horrekin, tokiko sorkuntza sustatzen dugu arte eszenikoen esparruan, Arabako konpainiei erakusteko aukerak irekiz. Eta nik gauza bat esaten dut beti zerbaiten bigarren edizio bat dagoenean: jarduera sendotuaren itxura hartzen zaio, eta hori da, zalantzarik gabe, gure helburua", esan du amaitzeko.

Zirkuituak larunbat honetan bertan egin du lehen emanaldia Langraiz-Okan, baina gainerako 32ek ekainaren 18tik irailaren 25era arte jarraituko diote, udalerrri hauetan: Agurain, Aiara, Dulantzi, Amurrio, Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Artziniega, Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Eltziego, Harana, Iruña Oka, Kuartango, Bastida, Lagran, Guardia, Lantaron, Lapuebla de Labarca, Audio, Legutio, Leza, Okondo, Oion, Urizaharra, Erriberabeitia, Urkabustaiz, Gaubea, Eskuernaga, Iekora, Zambrana, Zigoitia eta Zuia.

Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak, udal bakoitzak eta Artekale Euskal Herriko Kaleko Arteen Elkarteak (arte eszenikoetako profesionalen elkarte) elkarlanean antolatu dute. Artekale 2004an sortu zen euskal lurraldean kaleko arteak balorizatzeke, sustatzeko eta zabaltzeko asmoarekin. Izaera berezi eta bakarra du, bertan sektoreko hainbat profesionalak bat egiten baitute: artistek, jaialdiek eta banatzaileek. Guztiak kaleko artea duintzeko helburuarekin.

Ikuskizunei buruzko informazio guztia hemen aurki daiteke: <http://www.artekale.org/es/>.

EGITARAU

EGUNA	Udala	Herria	Konpainia	Lana
mai. 29	IRUÑA OKA	Langraiz Oka	Tomaxen Abenturak	Adi, grabatzen, ekin!!
ekai. 18	LEGUTIO	Legutio	Tio Teronen Semeak	Festamentua
ekai. 19	ZAMBRANA	Bergantzu	Deabru Beltzak	Les tambours de Feu
ekai. 19	AMURRIO	Amurrio	Shakti Olaizola	Baldin Bada
ekai. 19	HARANA	Baiezatu gabe	Xabi Larrea	Up!
ekai. 20	ZUIA	Murgia	Haatik Dantza	Itsas lapurrak
ekai. 24	AGURAIN	Agurain	Ganso&Cia	Panoli kabareta
ekai. 26	LAUDIO	Laudio	Hutsun+Ortzi	Urbasa
ekai. 26	BASTIDA	Bastida	Haatik Dantza	Errimak Bi Oinetan
ekai. 26	BERANTEVILLA	Berantevilla	Cía Maite Guevara	¡Qué buen día!
ekai. 28	GUARDIA	Guardia	Trapu Zaharra	Turistreando
uzt. 3	KUARTANGO	Zuhatzu Kuartango	Zanguango Teatro	Bestealdean/Al otro lado
uzt. 5	ARAMAIO	Aramaio	Rojo Telón	Nudo
uzt. 6	AIARA	Arespalditza	Sarini Zirko	TXORIAK TXORI
uzt. 10	LABRAZA	Labraza	Trakamatraka	Matraka ma non tropo
uzt. 15	DULANTZI	Dulantzi	Eidabe	Gora Kasete
uzt. 17	BERNEDO	Baiezatu gabe	Ganso&Cia	Babo Royal
uzt. 17	ESKUERNAGA	Eskuernaga	Altraste danza	Que tienen las flores
uzt. 17	ZIGOITIA	Ondategi	Deabru Beltzak	Les tambours de Feu

uzt. 18	GAUBEA	Uribarri Gaubea	Molto Vivace	Jazz & Fusion Musik
uzt. 24	LEZA	Leza	Tio Teronen Semeak	Fresh Cool
uzt. 30	OKONDO	Okondo	Cía Maite Guevara	¡Qué buen día!
uzt. 31	LANTARON	Leziñana	Berdinki Zirkua	mikra
abuz. 21	LAPUEBLA DE LABARCA	Lapuebla de Labarca	Deabru Beltzak	Les tambours de Feu
abuz. 22	KANPEZU	Oteo	Trapu Zaharra	Por hacer un favor
irail. 4	ARTZINIEGA	Artziniega	Hutsun+Ortzi	Urbasa
irail. 11	LAGRAN	Zehaztu gabe	Goitibera	Yijaaa!!!
irail. 25	URIZAHARRA	Montoria	Ganso&Cia	Panoli kabareta
Abuz 22	IEKORA	lekora	Cía Maite Guevara	¡Qué buen día!
uzt. 22	ARRATZUA-UBARRUNDIA	Dura	Patata Tropikala	Pirata Garrapata
uzt.18	URKABUSTAIZ	Izarra	Rojo Telón	Nudo
uzt.2	ERRIBERABEITIA	Ribabellosa	Trapu Zaharra	Por hacer un favor
Uzt..25	ELTZIEGO	Eltziego	Barsanti teatroa	Kale Gorrian